| | | | |
|---|---|---|---|
| **Ardatz estrategikoa:** | **2. ardatza.- Herritarrekiko elkarrekintza** | **Proiektua:** | **2.4. Zerbitzu elektronikoen erabilera sustatzea** |
| **Azpiproiektua:** | **2.4.5. Zerbitzu elektronikoen erabilera sustatzeko berariazko ekintzak** | | |
| **Deskribapenaren laburpena:** | Erakunde publikoetan administrazio elektronikoa garatu ahal izateko erronka nagusietako bat da abiarazitako zerbitzu elektronikoak modu orokorrean erabiliak izatea.<br><br>Herritarrek (enpresek, administrazioek...) zerbitzu horiek erabil ditzaten sustatu nahi da, haiek hedatzera eta erabiltzera bideratutako ekintzen bidez. | | |

| **Helburu orokorrak:** | **Helburu operatiboak:** |
|---|---|
| • Zerbitzu elektronikoen erabilera sustatzea | • Herritarrak: izapide elektronikoen %25<br>• Enpresak: izapide elektronikoen %75 |

**Egikaritzea:**

- Ezin izan da proaktiboki jorratu, azpiproiektu hau sustatzeko beharrezkoak diren giza baliabideak urriak direlako. Alabaina, 2016an ***"Hurbidu eta ezagutu Euskadi.eus berria"*** zabalkunde-kanpaina egin da; horren azken helburua da euskadi.eus-en diseinu berriari ahalik eta zabalkunde handiena ematea eta herritarren eta Euskal Administrazio Publikoaren arteko harreman elektronikoa bultzatzea.
- Ez da egin zerbitzu elektronikoak bultzatzeko berariazko ekintzarik, baina esan daiteke, goian aipaturikoaz gain, emaitzak nahikoa onak izan direla. Eusko Jaurlaritzaren PLATEA-plataforma korporatiboaren bidez aurkeztutako datuen arabera, 2016an eskaeren %48,6 elektronikoki tramitatu dira, eta gainerako %51,4a, presentzialki. Ez da bereiztu nortzuek aurkeztu dituzten eskaerak, pertsona fisikoek ala juridikoek, baina ikusten da beren zerbitzuak batez ere enpresei ematen dizkieten sailetan igo dela eskaera elektronikoen portzentajea. Hala, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailean %75,9koa da elektronikoki egindako eskaeren kopurua, eta Ingurumen eta Lurralde Politika Sailean, % 95,1ekoa.

| **Arduraduna:** | **Aldi baterako aurreikuspena:** | **Egikaritzeko benetako epea:** | **Egoera:** | **Balorazioa:** |
|---|---|---|---|---|
| DACIMA | Epea: 3 urte<br>Hasiera: 2014<br>Amaiera: 2016 | Hasiera: 2016<br>Amaiera: | ☐ Amaitua<br>■ <u>Aribidean</u><br>☐ Hasi gabe | ☐ Positiboa<br>■ <u>Hala-nolakoa</u><br>☐ Negatiboa |

**Oharrak:**